



AULESTIKO UDALA

OHARRA: HERRIKO ZERBITZUETAN **ALDAKETAK**

KORONABIRUSAREN TRANSMISIOA EKIDITEKO

Covid-19 gaitza dala eta, herriko hainbat zerbitzuek aldaketak izan dabez.

- **Medikua:** Aulestiko mediku kontsulta itxita egongo da eta zer edo zer behar izanez gero, 946035860 telefono zenbakira deitu behar da.
- **Botika:** Betiko ordutegia mantenduko da, 9:30etatik 13:30etara. Aldaketa bakarra, atea itxita izango dala eta leihotik egingo dala erosketa.
- **Udaleko arreta zerbitzua:** Udalak lanean jarraitzen dau atea itxita, goizeko 9:00etatik 14:00etara. Edozer behar izanez gero, 946279006 telefono zenbakira deitu edo e-maila bidali administraria@ulesti.eus edo idazkaria@ulesti.eus helbideetara.
- **Bizkaibus zerbitzua:** Zerbitzu honetan murrizketak egon dira eta hau izango da autobusa Aulestitik pasatuko dan ordutegia.

Aulestitik-Lekeitiora: 9:30/13:30/17:30/21:30

Aulestitik-Bilbora: 6:00/10:00/14:00/18:00

Neurri honek holan mantenduko dira kontrako irizpiderik jasotzen ez dan bitartean.

Aulestiko Udalak eta Gazte Asanbladak **zaintza sarea** osotu dabe herrian eta adineko pertsonen zein egoera zaurgarrian dagozan pertsonen erosketa zerbitzua eskaintzeko telefono zenbaki bat jarri da martxan (**688655813**). Garrantzitsua ikusten dogu egoera honetan dagozan herritarrak etxean geratzea.

Zaindu gaitzean danon artean.